**ERRENTERIAKO UDALA**
Ogasun eta Garapen Ekonomikoa

**AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA**
Hacienda y Desarrollo Económico

**Espediente zk./**Nº Expediente: 2020SDBD0026
**Gaia/**Asunto: HURBILEKO SALMENTA-SAREA INDARTZEKO BONOAK BANATZEKO KANPAINA / CAMPAÑA REPARTO BONOS PARA REFORZAR EL CANAL DE VENTA DE PROXIMIDAD
**Eskatzailea**/Solicitante: SDBD **NAN(IFK)**/DNI(NIF): 90909090A
**Kokalekua/**Emplazamiento: ERRENTERIA **Dekretu zbkia /** Nº Decreto : **1240**

**DEKRETUA**

**DECRETO**

**AURREKARIAK**

**ANTECEDENTES**

Martxoaren 14ean 463/2020 Errege Dekretua onartu zen, COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratuz. Alarma egoera etengabe luzatuz joan da, gutxienez 2020ko maiatzaren 9ra arte.

Con fecha 14 de marzo se aprobó el Real Decreto 463/2020, por el que se declaraba el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19. Dicho estado de alarma se ha ido prorrogando sucesivamente hasta, en la actualidad, el 9 de mayo de 2020.

Kontuan hartuta beharrezkotzat jotzen dela premiazko ezohiko neurriak hartzea COVID-19 birusak Errenteriako herritarren artean izan dezakeen inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko.

Teniendo en cuenta que es necesario adoptar medidas extraordinarias urgentes para hacer frente al impacto económico y social del COVID-19 entre la ciudadanía de Errenteria.

Apirilaren 24ean Alkateak onartu du, besteak beste, Talka- eta suspertze-plana tokiko ekosistema ekonomikoan COVID-19ren duen inpaktua arintzeko, udal talde politiko guztien adostasuna jasota.

Con fecha 24 de abril la Alcaldesa ha aprobado, entre otros, el Plan de choque y reactivación para mitigar el impacto del COVID-19 en el ecosistema económico local, con la conformidad de todos los grupos políticos municipales.

Talka- eta suspertze-plan horretan jasotako neurrietako bat merkataritza, ostalaritza eta jatetxeen txikizkako sektoreak indartzeko bonoak banatzeko kanpaina batean datza.

Una de las medidas incluidas en dicho Plan de choque y reactivación consiste en una campaña de reparto de bonos mediante los cuales se pretende reforzar los sectores minoristas del comercio, hostelería y restauración.

Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorrak, azaroaren 17koak, xedatzen du tokiko udalbatzek diru-laguntzen oinarri arautzaile egokiak ezartzeko beharra.

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, establece la necesidad de que las corporaciones locales establezcan las oportunas bases reguladoras para el reparto de subvenciones.

Araudi hori aplikatzeko, Udalak onartu du Errenteriako Udalaren diru-laguntzak ematea arautzeko Udal ordenantza (2015eko abuztuaren 10eko GAO).

En aplicación de esta normativa el Ayuntamiento de Errenteria ha aprobado la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria (B.O.G. de 10 de agosto de 2015).

2019ko azaroaren 19an 3364 zk.ko dekretu bidez

Mediante Decreto nº3364 de fecha 19 de noviembre

Errenteriako Udalak 2020. urtean eta 2020-2021 ikasturtean zehar lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzen Oinarri Orokorrak onartu ziren. Oinarri orokor hauek modu osagarrian aplikatuko dira deialdi honen bitartez xedatzen ez diren ataletan.

Erabaki honetan arautzen eta deitzen diren diru-laguntzak Udalaren 2020-2023rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoan bilduta daude.

Kontuan hartuta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluak udalerrien eskumen propio bezala aitortzen duela *tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak garatzea* (1.25) zb.).

Laguntza hauek izapidetzeak, salbuespen gisa, lehia baztertzen du, kasu honetan ez baita beharrezkoa eskabideak elkarren artean alderatzea, eta deialdi honetan zehaztutako baldintzak betetzen dituen orori laguntzeko interes berezia dagoelako.

Era berean, lehiarik gabeko konkurrentzia da laguntza-eskaerei behar bezalako arretaz erantzuteko aukera ematen duen mekanismoa.

Hortaz, diruz lagunduko dira deialdian ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak, kreditua agortu arte.

Bestetik, deialdiak 10€ bina bonoen banaketa aurreikusten du bizikidetza-unitateko eta 18 eta 35 urte artekoen artean. Udal erroldako datuen arabera, eskatutako baldintzak betetzen dituzten onuradun kopurua 23.015 unitatekoa da.

Gastu-aurrekontuan kreditu-zuzkidura nahikoa eta egokia dago.

Aholkulari juridikoak bere oniritzia eman dio ebazpen proposamenari 2020/06/18ko dataz.

de 2019 se aprobaron las Bases Generales para la concesión de subvenciones mediante concurrencia competitiva por el Ayuntamiento de Errenteria durante el año natural 2020 y el curso 2020-2021, que serán de aplicación supletoria en lo no regulado en esta convocatoria.

La línea de subvención cuya regulación y convocatoria es objeto del presente acuerdo, está incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento 2020-2023.

Teniendo en cuenta que la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, reconoce en su artículo 17 como competencias propias de los municipios *el desarrollo local económico y social y políticas o planes locales de empleo* (letra 1.25)

La tramitación de estas ayudas, excepcionalmente, excluye la concurrencia competitiva por cuanto en estos casos no es necesaria la comparación de proyectos entre sí y por el interés especial de promover cualquier proyecto que cumpla los requisitos especificados en la presente convocatoria.

Asimismo, la concurrencia no competitiva es el mecanismo que permite que las solicitudes de ayuda puedan ser atendidas con la debida diligencia.

Por lo tanto serán subvencionables todas las solicitudes que cumplan los requisitos establecidos en la convocatoria, hasta el agotamiento del crédito.

Por otro lado. la convocatoria prevé el reparto de 2 bonos de 10€ por cada unidad convivencial y por cada joven entre 18 y 35 años (ambos inclusive). Según los datos del padrón municipal, el número de personas beneficiarias que cumplen los requisitos exigidos asciende a 23.015 unidades.

Existe consignación presupuestaria adecuada y suficiente en el presupuesto de gastos.

Examinada la propuesta de resolución por el Asesor jurídico municipal, éste ha dado su visto bueno con

fecha 18/06/2020.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta Kontuhartzaileak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, y con la conformidad dada por la Interventora a la propuesta de decreto que consta en el expediente.

Honen bidez,

Por la presente,

**EBATZI DUT**

1.- ONARTZEA HURBILEKO SALMENTA-SAREA INDARTZEKO BONOAK BANATZEKO KANPAINA gauzatzeko deialdia, eranskinean jasota dagoena.

2.- BAIMENTZEA gehienez ere 460.300 euroko gastua 2020 urteko udal aurrekontuaren 1 0320.480.01.431.00 2020 partidako 2081/2020 zorpekoaren kontura.

Ondoren, partida horren kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

3.- Ebazpen honen BERRI EMATEA Udalbatzaren hurrengo osoko bilkuran.

**RESUELVO**

1.- APROBAR la convocatoria de CAMPAÑA DE REPARTO DE BONOS PARA REFORZAR EL CANAL DE VENTA DE PROXIMIDAD, que se adjunta como anexo.

2.- AUTORIZAR un gasto máximo de 460.300 euros con cargo al autorizado 2081/2020 en la partida 1 0320.480.01.431.00 2020 del presupuesto municipal.

Si dicha partida fuese ampliada, podrá autorizarse nuevo gasto imputable a la presente convocatoria.

3.- DAR CUENTA de la presente resolución al Pleno municipal en la siguiente sesión ordinaria.

Errenteria, 2020ko ekainaren 18a

Errenteria, 18 de junio de 2020

Zinegotzi Delegatua / Concejal delegado

Eneko del Amo Jiménez

Errenteria
Eneko del Amo Jiménez

Firmado digitalmente por ENEKO DEL AMO JIMENEZ - 78748785M
Fecha: 2020.06.18 14:18:19 +02'00'

**Erreg. zk** ./ Nº Registro**:** 2020SDBD0026
**Gaia/**Asunto**:** TALKA- ETA SUSPERTZE-PLANA. 10. HURBILEKO SALMENTA-SARE FISIKOA INDARTZEKO BONUAK BANATZEKO KANPAINA
**Eskatzailea/**Solicitante**:** SDBD **NAN(IFK)/**DNI(NIF): 90909090A
**Kokalekua/**Emplazamiento**:** ERRENTERIA

## DIRULAGUNTZAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

### HURBILEKO SALMENTA-SARE FISIKOA INDARTZEKO BONUAK BANATZEKO KANPAINA

## BASES ESPECÍFICAS DE SUBVENCIONES

### CAMPAÑA DE REPARTO DE BONOS PARA REFORZAR EL CANAL DE VENTA FÍSICO DE PROXIMIDAD

**1.- Dirulaguntzaren xedea**

Oinarri hauen helburua da oinarri arautzaileak ezartzea bonuak emateko COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko deklaratutako alarma-egoera amaitutakoan indartzeko hurbiltasuneko salmentaren kanalak, horretarako sustatuta tokiko sare ekonomikoa, herriko gazteen kolektiboa erakartzeko asmo gehigarriarekin.

Hartara, diruz lagunduko da deialdi honi atxikitako merkataritzako, zerbitzuetako, ostalaritzako edo jatetxeetako txikizkako establezimenduetan ondasun eta zerbitzuak erostea.

**1.- Objeto de la subvención**

Estas bases tienen por objeto establecer las Bases Reguladoras de aplicación a la concesión de bonos para reforzar, una vez finalizado el estado de alarma declarado para la gestión de la crisis sanitaria del COVID-19, el canal de venta de proximidad, potenciando para ello el tejido económico local con la intención adicional de atraer al colectivo joven del municipio.

Por tanto, se subvencionará la compra de bienes y servicios realizada en establecimientos comerciales, de servicios, hosteleros o de restauración minoristas adheridos a esta convocatoria.

**2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua**

Deialdi honetan dirulaguntzetara guztira bideratuko dira 460.300 €, 2020ko aurrekontukoaren partida honen kontura:

**2.- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones.**

El importe total destinado a la presente subvención es de 460.300€ con cargo a la partida presupuestaria del 2020 siguiente:

1 0320.480.01.431.00 2020

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezingo du gainditu bonuekin finantzatutako erosketen zenbatekoa, ez bakarrean, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el importe de las adquisiciones financiadas con dichos bonos.

**3.- Epea**

Errenteriako Udalak dirulaguntzak emango ditu 2020ko uztailaren 15aren eta irailaren 15aren artean ondasun eta zerbitzuak erosteko.

**3.- Ámbito temporal**

El Ayuntamiento de Errenteria subvencionará la compra de bienes y servicios realizada entre el 15 de julio y el 15 de septiembre de 2020.

**4.- Onuradunak**

Laguntza hauen onuradun izango dira Errenteriako establezimendu edo dendetan (9. ataleko zerrendan jasotakoak) ondasun edo zerbitzuren bat erosteko bonuak erabiltzen dituztenak.

**5.- Onuradunek bete beharreko baldintzak.**

Bi onuradun-mota izango dira:

- Etxebizitza edo ostatu batean batera bizi diren pertsonak. Aurrerantzean, bizikidetza-unitateak.
- 2002 eta 1985. urteen artean jaiotako pertsonak. Aurrerantzean, gazteak.

Hori guztia kontuan hartuko da deialdi hau onartzen deneko erroldako datuen arabera.

**6.- Diruz lagun daitezkeen gastuak**

Oinarri hauetan aurreikusitako ondorioetako, diruz lagun daitekeen gastua izango da 10 euroko gutxieneko hobaria, 30 eurotik gorako erosketa bakoitzeko, betiere ondasun edo zerbitzuren bat erosten bada 9. ataleko zerrendan ageri diren Errenteriako establezimendu edo dendaren batean.

**7.- Bonuen kopurua eta zenbatekoa**

Onuradun-mota bakoitzeko kideek, baldintzak betetzen badituzte, bonu hauek jasoko dituzte:

🕐 Gazteak: 10 euroko bi bonu.

🕐 Bizikidetza-unitateak: 10 euroko 2 bonu.

Bonu horiek bateragarriak izango dira kide gazteak dituzten bizikidetza-unitateetan.

**8.- Prozedura.**

Errenteriako Udalak ofizioz bidaliko ditu, posta arruntez, Errenteriako etxebizitza bakoitzari dagozkion bonuak, deialdi hau onartzen den eguneko errolda-datuen arabera.

Bonu bakoitzak inprimatuta izango du identifikazio-kode bat eta erabili ahal izango da 9. atalean adierazitako establezimendu edo dendaren batean ondasun edo zerbitzuak eskuratzeko.

**4.- Beneficiarios**

Se considerarán beneficiarios de estas ayudas todas aquellas personas que hagan uso de los bonos para adquirir algún bien o servicio en algún establecimiento o comercio de Errenteria de los relacionados en el apartado 9.

**5.- Requisitos de los beneficiarios**

Se establecen dos tipos de personas beneficiarias:

- las personas que vivan juntas en una misma vivienda o alojamiento. En adelante, unidades convivenciales.
- las personas nacidas entre 2002 y 1985, ambos inclusive. En adelante, jóvenes.

Todo ello, en función de los datos del padrón municipal en la fecha de aprobación de esta convocatoria.

**6.- Gastos subvencionables**

A los efectos previstos en estas bases, se considera gasto subvencionable la bonificación de, mínimo, 10 euros por cada compra superior a 30 euros, de algún bien o servicio en algún establecimiento o comercio de Errenteria de los relacionados en el apartado 9.

**7.- Número y cuantía de los bonos**

Cada tipo de persona beneficiaria que cumpla los requisitos, recibirá:

🕐 Cada joven: 2 bonos de 10€.

🕐 Cada unidad convivencial: 2 bonos de 10€.

Estos bonos son acumulables entre sí, en el caso de unidades convivenciales que incluyan jóvenes.

**8.- Procedimiento.**

El Ayuntamiento de Errenteria remitirá de oficio, por correo postal ordinario, los bonos que correspondan a cada vivienda de Errenteria, en función de los datos del padrón municipal a fecha de aprobación de esta convocatoria.

Cada uno de los bonos llevará impreso un código identificativo y podrá utilizarse para realizar adquisiciones de bienes o servicios en algún establecimiento o comercio de



• C.I.F. P-2007200-E Merkatuzr – Pablo Iglesias, 3. • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

Hainbat bonu batera erabili ahal izango dira, betiere 30 euro baino gehiagoko erosketa egiten bada.

Errenteria de los relacionados en el apartado 9.

Los bonos son acumulables entre sí, siempre que la compra sea superior a 30 euros.

**9.- Atxikitako entitateak**

Atxikitako entitateak izango dira oinarri hauetan arautaitutako bonuen bitartez ondasun edo zerbitzuak erosteko aukera ematen duten Errenteriako merkataritza, zerbitzu, ostalaritza eta jatetxeetako txikizkako establezimendu guztiak.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira firma handien edo Estatuan edo nazioartean ezarpen handia duten enpresen filialak, bai eta azalera handiak ere (400 $m^2$ baino gehiago).

Atxikitutako establezimenduen zerrenda Errenteriako Udalak **bizi.errenteria.eus** web-orrian argitaratuko du.

Era berean, atxikitutako establezimenduek eskura izango dute deialdiari buruzko publizitate-materiala, establezimenduan ikusgai jartzeko.

**9.- Entidades adheridas.**

Tendrán la consideración de entidades adheridas todos los establecimientos comerciales, de servicios, hosteleros o de restauración minoristas de Errenteria que permitan la compra de bienes o servicios mediante los bonos regulados en estas bases.

Se excluyen del ámbito de esta convocatoria las filiales de grandes firmas o empresas de gran implantación nacional o internacional, así como las grandes superficies (más de 400 $m^2$).

El Ayuntamiento de Errenteria publicará la relación de establecimientos adheridos en la página web **bizi.errenteria.eus.**

Asimismo, los establecimientos adheridos tendrán a su disposición material publicitario de la convocatoria, a colocar en un lugar visible del establecimiento.

**10.- Atxikitzeko eskaera burutzeko prozedura**

Atxikitzeko eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira (**bizi.errenteria.eus** web-orriaren bidez), oinarri hauetako I eranskineko ereduaren arabera. Edozein zalantza argitzeko, 010 edo 943 44 96 00 zenbakira deitu beharko da.

Atxikitzeko eskaera tramitatutakoan, Errenteriako Udalak posta arruntez edo posta elektronikoz bidaliko dizkie deialdiaren publizitate-materialak, bai eta aplikatutako hobariak ordaintzeko eskaera egiteko inprimakia ere.

Atxikitzeko eskaera egiteko epea zabalik egongo da deialdiak irauten duen bitartean, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik ordainketak jasotzeko eskaerak aurkezteko epea amaitzen den arte (14. atalean finkatzen da epe hori).

**10.- Procedimiento para solicitar la adhesión.**

Las solicitudes de adhesión deberán presentarse por vía telemática (a través de la página web **bizi.errenteria.eus**), según el modelo recogido en el anexo I de estas bases. Para cualquier duda se podrá llamar al 010 ó al 943 44 96 00.

Una vez tramitada la solicitud de adhesión, el Ayuntamiento de Errenteria remitirá por correo postal y/o electrónico los materiales publicitarios de la convocatoria, así como el modelo de impreso para la solicitud del abono de las bonificaciones aplicadas.

El plazo para solicitar la adhesión estará abierto durante todo el plazo de vigencia de la convocatoria, desde el día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta la finalización del plazo de presentación de solicitudes de abono, fijado en el apartado 14.



• C.I.F. P-2007200-E Merkatuzr – Pablo Iglesias, 3. • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

**11.- Atxikitako entitateen betebeharrak.**

Hauek dira atxikitako entitateen betebeharrak:

1. Udalak emandako publizitate-materialak jartzea ikusgai establezimenduan.

2. Errenteriako Udala aipatzea dirulaguntzaren xede diren jardueren inguruko publizitatean.

**12.- Atxikitako entitateei egin beharreko ordainketen zenbatekoa.**

Establezimendu bakoitzari ordainduko zaio hobariari (10 €) eta bere establezimenduan erabilitako bonu-kopuruen arteko biderkadura.

**13.- Aplikatutako hobariak ordaintzeko eskaera aurkezteko prozedura.**

Eskabideak aurkeztu ahal izango dira:

A) Edozein momentutan:

- Telematikoki, Errenteriako Udalaren erregistro elektronikoaren bidez

- Paperean, ZU! arreta zerbitzuaren bidez.

- Entitate kolaboratzaileen bidez

B) Hamabost egunero:

- 010 zenbakira deituta, Udaleko langileek establezimenduan bertan jaso dezaten.

Eskabidearekin batera (eredua II. eranskinean jasota dago), dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

1.- Ordaindu behar diren bonuen zerrenda, jatorrizkoekin batera.

2.- Faktura / faktura sinplifikatu / tiketen zerrenda, zenbakiak, zenbatekoak eta datak adierazita.

3.- Egoki bada, erosketak ordaindu izanaren frogagiri edo egiaztagiriak.

**14.- Ordainketen eskabideak aurkezteko epea.**

Ordainketak jasotzeko eskabideak aurkezteko epea zabalik

**11.- Obligaciones de las entidades adheridas.**

Son obligaciones de las entidades adheridas:

1. La colocación de los materiales publicitarios que le sean proporcionados, en un lugar visible del establecimiento.

2. La mención al Ayuntamiento de Errenteria en la publicidad que realice sobre las actividades objeto de subvención.

**12.- Cuantía de los abonos a realizar a las entidades adheridas.**

A cada establecimiento se le abonará la cantidad resultante del producto de la bonificación (10€) por el número de bonos utilizados en su establecimiento.

**13.- Procedimiento para solicitar el abono de las bonificaciones aplicadas.**

Las solicitudes de abono de las bonificaciones efectivamente aplicadas se podrán presentar:

A) En cualquier momento:

- Por vía telemática a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Errenteria.

- En papel a través del servicio de atención ZU!,

- Mediante las entidades colaboradoras

B) Quincenalmente:

- Llamando al 010 para que personal del Ayuntamiento la recoja en su establecimiento.

Junto con la solicitud, cuyo modelo se adjunta en el anexo II, se deberán aportar los siguientes documentos:

1.- La relación de los bonos utilizados por los que se solicita el abono, junto con el original de los mismos.

2.- Una relación de las facturas/facturas simplificadas/tickets de compra con indicación de su número, importe y fecha

3.- En su caso, los resguardos y/o justificantes de los abonos de las correspondientes compras.

**14.- Plazo de presentación de solicitudes de abono.**

El plazo de presentación de solicitudes de abono estará

egongo da 2020ko urriaren 2ra arte.

**15.- Hobariak ordaintzea.**

Atxikitako establezimenduek justifikatutako zenbatekoak ordainduko dira eskaerak aurkeztu, justifikatu eta ebatzi ondoren, eskaerak aurkeztu diren hurrenkeraren arabera.

**16.- Entitate laguntzaileak: baldintzak**

Laguntza hauek kudeatzeko entitate laguntzaile izan ahalko dira Errenterian zabaldutako establezimendu batean jarduerak burutzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak, arlo hauetan jarduten badira:

a) Enpresa-aholkularitza

b) Merkatari-elkarteak

c) Finantza-erakundeak

d) Oarsoaldea garapen-agentzia

Entitate laguntzaile izateko, eskatzaileek bete behar dituzte deialdiaren III. eranskineko erantzukizunpeko adierazpenean jasotzen diren baldintza eta betebeharrak.

**17.- Entitate laguntzaileak: atxikitzeko prozedura**

Entitate laguntzaile izateko eskaera aurkezteko epea zabalduko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Errenteriako Udalak, egiaztatu ondoren betetzen dituela entitate laguntzaile izateko baldintzak, interesdunari jakinaraziko dio bere eskaera onartu duela eta identifikazio-kode bat esleituko dio atxikitzeko edo hobaria ordaintzeko eskabideak tramitatu ahal izateko.

**18.- Entitate laguntzaileak: atxikitzeko edo ordaintzeko eskabideak tramitatzea.**

Entitate laguntzaileek, ordaintzeko eskaerak tramitatzerakoan, egiaztatu beharko dute atxikitako entitateek betetzen dituztela baldintzak eta aurkeztu dutela eskatutako dokumentazioa. Ez bada hala, ez dute eskaera aurkeztuko.

abierto hasta el 2 de octubre de 2020.

**15.- Abono de las bonificaciones**

Las cuantías justificadas por los establecimientos adheridos se abonarán tras su solicitud, justificación y resolución, por orden de presentación de las solicitudes.

**16.- Entidades colaboradoras: requisitos**

Podrán actuar como entidad colaboradora en la gestión de las presentes ayudas las siguientes personas, físicas o jurídicas, que ejerzan sus actividades en un establecimiento abierto en Errenteria:

a) Las dedicadas al asesoramiento a empresas.

b) Las asociaciones de comerciantes.

c) Las entidades financieras.

d) La agencia de desarrollo Oarsoaldea.

Para ser reconocidas como entidades colaboradoras, las solicitantes deben cumplir los requisitos y obligaciones que se recogen en la declaración responsable que se adjunta como anexo III a esta convocatoria.

**17.- Entidades colaboradoras: procedimiento de adhesión**

El plazo para solicitar actuar como entidad colaboradora comenzará al día siguiente de la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

El Ayuntamiento de Errenteria, una vez comprobado el cumplimiento de los requisitos para ser entidad colaboradora, notificará a la interesada que su solicitud ha sido aceptada, asignándole un código de identificación que le habilitará para tramitar las solicitudes tanto de adhesión, como de abono de la bonificación.

**18.- Entidades colaboradoras: tramitación de solicitudes de adhesión y/o abono**

Las entidades colaboradoras, al tramitar las solicitudes de abono, deberán comprobar que las entidades adheridas cumplen los requisitos y aportan la documentación exigida. En caso contrario, no presentarán la solicitud.



• C.I.F. P-2007200-E Merkatuzr – Pablo Iglesias, 3. • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

Entitate horiek ezingo dute ezer kobratu laguntzaren eskabidea tramitatzeagatik edo izapide hori burutu beste zerbitzuren bat kontratatzearen baldintzapean.

Estas entidades no podrán cobrar ninguna cantidad por la tramitación de la solicitud de la ayuda, ni condicionar su actuación a la contratación de ningún tipo de servicio.

**19.- Oinarri orokorrak**

Oinarri espezifiko hauetan zehaztu gabekoari buruz, legokiokeenean, ERRENTERIAKO UDALAK 2020. URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORRETARA jo beharko da.

**19.- Bases generales**

En lo no especificado en esta bases específicas, le serán de aplicación en lo que procediera las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA DURANTE EL AÑO 2020.



• C.I.F. P-2007200-E Merkatuzr – Pablo Iglesias, 3. • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

## 1. ERANSKINA.- Atxikitzeko inprimakiaren eredua
Anexo 1. Modelo de formulario de adhesión

## TALKA ETA SUSPERTZE PLANA: / PLAN DE CHOQUE Y REACTIVACION:

**HURBILEKO SALMENTA-SARE FISIKOA INDARTZEKO BONUAK BANATZEKO KANPAINA**CAMPAÑA DE REPARTO DE BONOS PARA REFORZAR EL CANAL DE VENTA FÍSICO DE PROXIMIDAD

**TITULARRA - INTERESDUNA** / TITULAR - PERSONA INTERESADA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Izen-deiturak** / Nombre y apellidos | | | | **NANa edo bestelako identifikazio agiriren bat** / DNI o documento de identificación | |
| **Dendaren izena /** Nombre del comercio: | | | | | |
| **Dendaren helbidea** / Domicilio del comercio | | **PK /** CP | **Herria** / Municipio | **Probintzia** / Provincia | ☎ **Finkoa** / Fijo |
| 🖷 **Faxa /** Fax | 🖂 **e-posta** / e-mail | | **@ Sare sozialak** / Redes sociales | | ☎ **Mugikorra** / Móvil |

**ORDEZKARIA - DOKUMENTU AURKEZLEA** / REPRESENTANTE – PRESENTADOR/A DOCUMENTO

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Izen-deiturak** / Nombre y apellidos | | | | **NANa edo bestelako identifikazio agiriren bat** / DNI o documento de identificación | |
| **Jakinarazpenetarako helbidea** / Domicilio para notificaciones | | **PK /** CP | **Herria** / Municipio | **Probintzia** / Provincia | ☎ **Finkoa** / Fijo |
| 🖷 **Faxa /** Fax | 🖂 **e-posta** / e-mail | | **@ Sare sozialak** / Redes sociales | | ☎ **Mugikorra** / Móvil |

| | |
|---|---|
| **Harremanetarako hizkuntza** / Idioma de relación<br>◯ **Euskara** ◯ **Elebitan** / Bilingüe | **Sexua** / Sexo<br>◯ **Emakumea /** Mujer ◯ **Gizona /** Hombre ◯ **Besterik** / Otro |

| | |
|---|---|
| **JEZ epigrafea/** Epígrafe IAE | |
| **Abonoa(k) egitekokontu korronte zkia. (IBAN 24 digitu) /**<br>N.º de c/c en la que se realizará el abono (IBAN 24 digitos) | |
| **Titularraren izen-deiturak** / Nombre y apellidos del titular | **NANa edo bestelako identifikazio agiriren bat**<br>**/** DNI o documento de identificación |

| |
|---|
| **Ordainketa eskaerak jasotzeko Udala zure negoziora bertaratzea nahi duzu?**/ ¿Quiere que el Ayuntamiento le envie a su negocio las solicitudes de pago?:<br>◯ **Bai** / Si ◯ **Ez** / No |

**OHARRA: Baietz erantzun baduzu, hitzordua eskatu beharko duzu 010 doako telefono zenbakira deituta. /** NOTA: Si ha contestado afirmativamente deberá solicitar cita llamando al teléfono gratuito 010.



• C.I.F. P-2007200-E Merkatuzr – Pablo Iglesias, 3. • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

**2. ERANSKINA.- Abonoa eskatzeko inprimakiaren eredua**
Anexo 2.- Modelo de formulario de solicitud de abono

**TALKA ETA SUSPERTZE PLANA: / PLAN DE CHOQUE Y REACTIVACION:**

**10. HURBILEKO SALMENTA-SARE FISIKOA INDARTZEKO BONUAK BANATZEKO KANPAINA /**
10. CAMPAÑA DE REPARTO DE BONOS PARA REFORZAR EL CANAL DE VENTA FÍSICO DE PROXIMIDAD

**TITULARRA - INTERESDUNA** / TITULAR - PERSONA INTERESADA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Izen-deiturak** / Nombre y apellidos | | | **NANa edo bestelako identifikazio agiriren bat** / DNI o documento de identificación | |
| **Jakinarazpenetarako helbidea** / Domicilio para notificaciones | **PK /** CP | **Herria** / Municipio | **Probintzia** / Provincia | ☎ **Finkoa** / Fijo |
| 🖷 **Faxa /** Fax | 🖂 **e-posta** / e-mail | **@ Sare sozialak** / Redes sociales | | ☎ **Mugikorra** / Móvil |

**ORDEZKARIA - DOKUMENTU AURKEZLEA** / REPRESENTANTE – PRESENTADOR/A DOCUMENTO

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Izen-deiturak** / Nombre y apellidos | | | **NANa edo bestelako identifikazio agiriren bat** / DNI o documento de identificación | |
| **Jakinarazpenetarako helbidea** / Domicilio para notificaciones | **PK /** CP | **Herria** / Municipio | **Probintzia** / Provincia | ☎ **Finkoa** / Fijo |
| 🖷 **Faxa /** Fax | 🖂 **e-posta** / e-mail | **@ Sare sozialak** / Redes sociales | | ☎ **Mugikorra** / Móvil |

| | |
|---|---|
| **Harremanetarako hizkuntza** / Idioma de relación<br>◯ **Euskara** ◯ **Elebitan** / Bilingüe | **Sexua** / Sexo<br>◯ **Emakumea /** Mujer ◯ **Gizona /** Hombre ◯ **Besterik** / Otro |

## Adierazi eta ESKATZEN DUT / Expongo y SOLICITO:

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Aplikatutako hobarien ordainketaren justifikazioa**<br>Justificación de abono de las bonificaciones aplicadas | | | **Oharrak /** Observaciones: |
| **Bonuen kopurua**<br>N.º de bonos | **Gazteak**/ Jovenes | | |
| | **Bizikidetza-unitateak**/ Unidad convivencia | | |
| **Bonu kopurua guztira** / N.º de bonos totales | | | |
| | | X10 € / bono | |
| **Guztira ordaindu beharreko kopurua** / Cantidad total a abonar: | | € | |

## Honako agiri hauek aurkezten ditut / Adjunto la siguiente documentación:

☐ **Jatorrizko erabilitako bonoak** / Originales de los bonos utilizados.

☐ **Faktura / faktura sinplifikatu / tiketen zerrenda, zenbakiak, zenbatekoak eta datak adierazita** / Relación de las facturas/facturas simplificadas/tickets de compra con indicación de su número, importe y fecha

☐ **Erosketak ordaindu izanaren frogagiri edo egiaztagiriak** / Resguardos y/o justificantes de los abonos de las correspondientes compras.



• C.I.F. P-2007200-E Merkatuzr – Pablo Iglesias, 3. • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

**3. eranskina.- Entitate laguntzailea izateko eskaera eredua**
Anexo 3.- Modelo de solicitud de entidad colaboradora

**TALKA ETA SUSPERTZE PLANA: / PLAN DE CHOQUE Y REACTIVACION:**

**10. HURBILEKO SALMENTA-SARE FISIKOA INDARTZEKO BONUAK BANATZEKO KANPAINA**
10. CAMPAÑA DE REPARTO DE BONOS PARA REFORZAR EL CANAL DE VENTA FÍSICO DE PROXIMIDAD

**TITULARRA - INTERESDUNA** / TITULAR - PERSONA INTERESADA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Izen-deiturak** / Nombre y apellidos | | | **NANa edo bestelako identifikazio agiriren bat** / DNI o documento de identificación | |
| **Jakinarazpenetarako helbidea** / Domicilio para notificaciones | **PK /** CP | **Herria** / Municipio | **Probintzia** / Provincia | ☎ **Finkoa** / Fijo |
| 🖷 **Faxa /** Fax | 🖂 **e-posta** / e-mail | **@ Sare sozialak** / Redes sociales | | ☎ **Mugikorra** / Móvil |

**ORDEZKARIA - DOKUMENTU AURKEZLEA** / REPRESENTANTE – PRESENTADOR/A DOCUMENTO

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Izen-deiturak** / Nombre y apellidos | | | **NANa edo bestelako identifikazio agiriren bat** / DNI o documento de identificación | |
| **Jakinarazpenetarako helbidea** / Domicilio para notificaciones | **PK /** CP | **Herria** / Municipio | **Probintzia** / Provincia | ☎ **Finkoa** / Fijo |
| 🖷 **Faxa /** Fax | 🖂 **e-posta** / e-mail | **@ Sare sozialak** / Redes sociales | | ☎ **Mugikorra** / Móvil |

| | |
|---|---|
| **Harremanetarako hizkuntza** / Idioma de relación<br>○ **Euskara** ○ **Elebitan** / Bilingüe | **Sexua** / Sexo<br>○ **Emakumea /** Mujer ○ **Gizona /** Hombre ○ **Besterik** / Otro |

**Adierazten dut** / Declaro:

**- Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean dagoela.**
Que está al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

**- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen arabera entitate kolaboratzaile egoera lortzeko debekuren baten pean ez dagoela.**
Que no está incurso en ninguna prohibición para obtener la condición de entidad colaboradora, de las establecidas por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, general de subvenciones.

**ESKATZEN DUT** / SOLICITO:

**10. Hurbileko salmenta-sare fisikoa indartzeko bonuak banatzeko kanpainan entitate laguntzailea izatea eskatzen dut.**

Ser reconocido como entidad colaboradora de la 10. Campaña de reparto de bonos para reforzar el canal de venta físico de proximidad.